

LAN BATZORDE IREKIAK**TALDEA****OBRA BATZORDEA****IRAUPENA****1.5 ordu****EGUNA****2018-11-13****GAIA****DEIALDIA****PARTE HARTZAILEAK**

Endika Igarzabal

Iñaki Etxezarreta

Asier Agirre

Asier Osinalde

Nikolas Igarzabal

Pedro Iztueta

Lorentzo Iztueta

Joxe Kruz Baztarrika

Aratz Igartzabal

Felix Maiz

LANDUTAKO GAIAK**GAIA****EKINTZAK****ARDURA
DUNA****NOIZKO****AZTIRIKO TABERNA**

- Ez da gehiago landu gai hau. Baina aurrerago, beste saiakera bat egin liteke.

BASERRIBIDEAK

- Azkartzako bidea konpondu da, aurkeztu ziren bi bideetatik bat. %70eko laguntza eman du aldundiak.
- Bideen inbentarioari dagokionez, ez dago berririk. Datorren legealdirako utziko da, 2 urteetako lana baitauka. Hurrengo urteko aurrekontuan sartzea komeniko da, erdia behintzat.

MINATAKO BIDEA

- Irailetik hona aurrerapauso dezente egon dira. Aldundiak azkenean 100.000€ jarriko ditu bi herrien artean banatzeko.
- Udal bakoitzak bere aldetik egin du proiektua, eta Gabiriari dagokionez, lehentasuna bi luiziak konpontzea izango da eta 70.000€ko aurrekontua daukate biek.
- Gogoratu Gabiriak aurten 25.000€ dauzkala aurrekontuan jarrita, eta beste horrenbeste hurrengo urterako.
- Esleipena irekita dago eta bihar amaituko da epea. Asmoa, aurten bi luiziak konpontzea litzateke, eta datorren urterako konponketa txikiagoak.
- Mutiloari dagokionean, beraien asmoa aurtengo zatiak kunetak egitea da, eta datorren urtean 2.en fase bat.

OSTATU

- Ostatu atzeko zatia berritzeko proiektua bi zatitan banatu da, eta lehenik zimentazio lanak egingo dira, ingurua bigarren faserako prestatuz (25.000€ inguru).
- Irisgarritasun planeko laguntzetan ere sartu da proiektu hau Leader proiektuaz gain.

ALEGI AUZOA

- Azaroan egitekoak dira, obra adjudikatuta dago bidegorria egiteko. Ea noiz hasten diren.

ORBELDIKO BIDEA	<ul style="list-style-type: none"> Orbeliko karril azpiko bide zatiaren aurrekontua daukagu, 11.000€koa, zati bat asfaltatu eta luizi bat konpontzeko. Aurtengo urteko aurrekontuaren barruan egiteko asmoa dago, nahiz eta agian 2019an egin beharko den. 		
ARAU SUBSIDIARIOAK	<ul style="list-style-type: none"> Bigarren bilera bat ere egin zen, eta planteatu ziren puntu guztiak aurrera doaz: segregazioa egiteko gutxiengoa 10.000 m2, baserrietan egin litezken etxebizitzaren kopurua dauzkan m2 kopuruaren arabera definitzea, Aztirin elkarte azpialdeko lur eremuan bi etxe bi bizitzakoak egiteko aukera jartzea, Aztiriko eremu urbanoa bir-antolatzea... Arroakoa, martxan da baina ez dago berririk. 		
UDALETXEKO KOMUNA	<ul style="list-style-type: none"> Planteamendu orokorra eman zaio gai honi, eta 25.000€ko aurrekontua dauka. Komuna, pasiloa, ordenagailuen zentralitak... dena aldatuko litzateke. Ez da segituan egingo. 		
ESKOLAKO PARETA	<ul style="list-style-type: none"> Ez da aurrekonturik eskatu, momentuz. 		
PLAZAKO SARRERA	<ul style="list-style-type: none"> Plazako sarreratik hasi eta eliz atariraino, produktu bat eman da zoruak irrist ez egiteko. 		
HUSTIATEGI TXARTELA	<ul style="list-style-type: none"> Fitosanitarioen kursoa martxan da, eta abenduan egingo da, Legazpi eta Gabiriaren artean. Zein herritatik jende gehien apuntatzen den, han egingo da. 36€ko kostua izango luke partaidearentzat, eta udalak gainerako 14€ak jarriko lituzke. %90eko asistentzia beharrezkoa da, eta ez da beharrezkoa fraisoroko txartela edukitzea. 		
AGERRE AZPIKO KRUEZA	<ul style="list-style-type: none"> Informe eginda dago, eta firma bilketarako orriak ere prest dauzkagu. Firma bilketa hau nola egin pentsatu beharko da. 		
TXOKO AZPIKO URAK	<ul style="list-style-type: none"> Txoko azpi horretan, euri urak ur fekalekin nahastuta daude, eta Ur Konsorzioa hori konpontzekotan da. Udalaren eskumena omen da euri uren kontua, baina beraiek egitea da asmoa. 		
AUZOLANAK	<ul style="list-style-type: none"> Ardantzako bidea: azaroak 24, 8:30tan Minatako bidea: abenduak 29, 8:30tan 		
BIDEEN ORDENANTZA	<ul style="list-style-type: none"> Gaia atera da, nola herriko baserri bide batzuetan kamioi handiak ibiltzen diren, esplotazioen ondorioz. Ordenantza horrelako kasuak kontuan hartu beharra ikusten da. Pinudiak ateratzerakoan, kamioiko baino metro kubikoko ordaintzea aztertuko da. 		

Hurrengo bilera: urtarrilak 29, 19:00tan